



TXORIERRIKO MANKOMUNITATEA

TXORIERRIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

BERDINTASUN SAILA

2018ko JARDUEREN MEMORIA

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA	2
2. ZERBITZUAREN EGITEKOAK	3
2.1 KOORDINAZIO-LANA	3
➤ ERAKUNDE PUBLIKOAK	
➤ MANKOMUNITATEAREN ZERBITZUAK	
➤ UDALAK	
➤ HEZKUNTZA	
➤ ENPRESAK	
➤ ELKARTEAK	
➤ KOMUNIKABIDEAK	
2.2 BESTE EGITEKO BATZUK	5
➤ HEDAPENA	
➤ HERRITARRENTZAKO ARRETA	
➤ GIZARTE ZERBITZUEN BATZORDEA	
➤ DIRU-LAGUNTZAK	
3. PROGRAMAK	7
4. DIRU-LAGUNTZAK	22
5. UDAL BAKOITZEAN EGINDAKO LANAREN LABURPENA	22

1. ZERBITZUAREN AURKEZPENA

Berdintasun Zerbitzuaren betebeharr nagusia Udalei gai honi buruzko laguntza teknikoa ematea da. Zerbitzu honen helburua emakumezko eta gizonezkoen arteko harremanak aldatzea da. Horretarako, bai emakumezko eta gizonezkoen arteko desberdintasun eta diskriminazio egoerak zuzentzeko eta konpentsatzeko, bai genero-gizarteratzearen ondorioei aurre egiteko, bai berdintasunezko gizarte-eredu bat bermatzeko balio izango duten programak, planak eta proiektuak bultzatzen ditu.

Beste sailetan ez bezala, Berdintasun Sailak bi mailatan egiten du lan Mankomunitateak: haraneko udalerrri edo herritar guztientzat antolatutako **jarduketa komun bitartez** eta Udal bakoitzak bere herritarrentzat antolatutako **jarduketa espezifiko bitartez**. Bigarren kasu horretan, Mankomunitateko berdintasun-teknikariak laguntza teknikoa eskaintzen die udalerrri bakoitzeko Berdintasun Unitateei.

2. BERDINTASUN-ZERBITZUAREN EGITEKOAK

Zerbitzu hau existitzearen helburua da Txorierriko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorra lortzea, generoa zeharka landuz. Kontzeptu horrek erreferentzia egiten dio politika publikoetan emakumeen eta gizonen Tratu Berdinaren eta Aukera Berdinen printzipioa aplikatzeari; horrek esan nahi du bermatu egingo dela baliabide guztiak eskuratzeko aukera-berdintasuna dagoela, politika publikoak diseinatzekoan egun existitzen diren desberdintasunak aintzat hartzen direla eta politika horiek aurrez aipaturiko berdintasun erreal eta eraginkor hori lortzeko izan dituzten emaitzak eta eragina identifikatzen eta ebaluatzen dela.

2.1. KOORDINAZIOA

ERAKUNDE PUBLIKOAK

- Bizkaiko Foru Aldundia

Etengabe dihardugu elkarlanean Aldundiarekin; izan ere, erakunde horrek diruz laguntzen ditu berdintasunaren arloan Udalek egiten dituzten hainbat ekintza. Derio salbuespena da; izan ere, 5.000 biztanletik gora dituenek, ez du Aldundiaren diru-laguntza hori jasotzen.

Bestalde, BERDINBIDEAN BIZKAIA proiektua dugu. Proiektu horrek berdintasunaren alde lan egiten du Lezaman eta Zamudion; hori dela eta, beharrezkoa da erakunde horrekin harreman estuagoa izatea.

- EMAKUNDE

Emakumearen Erakundea oinarritzkoa da EAEn berdintasuna lortu ahal izateko, eta lankidetzak funtsezkoa da sailak behar bezala funtziona dezan.

➤ EUDEL

Udallerri guztiak BERDINSAREA izenekoaren kideak dira. BERDINSAREA euskal udallerrien sare bat da eta berdintasunaren alde lan egiten du.

Hori dela eta, ezinbestekoa da EUDELekin eta sareko kide diren gainerako udallerriekin lankidetzan aritzea.

MANKOMUNITATEAREN BESTE ZERBITZU BATZUK

Berdintasuna Mankomunitateko sail guztietan zeharka landu ahal izateko, egunez egun elkarlanean aritzen gara Gazteria, Esku-hartze Komunitario eta Euskara sailtako teknikariek.

UDALAK

Zerbitzu honek behar bezala funtziona dezan, ezinbestekoa da lankidetzan aritzea udal guztietako Kultura Sailekin; hori dela eta, hilean behin sail horretako ordezkari guztiok bildu egiten gara Gazteria, Euskara, Esku-hartze Komunitario eta Berdintasun sailtako ordezkariekin.

Ekintzak abiatzeko, ezinbestekoa da, halaber gazteguneetako, gaztelekuetako eta ludoteketako begiraleekin harremanetan egotea.

HEZKUNTZA

Martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko kanpainetan, ohikoa da eskola publikoetara ekintzak eramatea; horretarako, ezinbestekoa da ikastetxe horietako zuzendaritzekin elkarlanean jardutea.

Kanpaina horietan, HHLan ere abiatzen dira ekimenak; horretarako, funtsezkoa da ikastetxeko zuzendaritza-taldearekin batera lan egitea.

Politeknika Ikastegia Txorierrarekin ere harreman estua dugu; izan ere, urtero antolatzen da bizikidetzarekin eta berdintasunarekin erlazionaturiko jarduera bat.

ENPRESAK

Enpresa hauekin egiten dugu lan batez ere: WOM COMUNICACIÓN, ORTZADAR, ESHE, MURGIBE, SORTZEN, LANTEGI BATUAK.

ELKARTEAK

Mankomunitatea osatzen duten hainbat udalerrik emakume-elkarteak dituzte; Berdintasun Saila haiekin harreman etengabea eta lankidetzara jarraitua izaten saiatzen da.

KOMUNIKABIDEAK

Funtsean, Berdintasun Saila bi komunikabiderekina aritzen da elkarlanean: AIKOR eta DEIA.

2.2. BESTE FUNTZIO BATZUK

HEDAPENA

Udalerrietako kultur agendak eta webguneak erabiltzen dira batez ere Berdintasun Sailak antolatzen dituen jarduerak ezagutzera emateko.

Horrez gain, kartelak jarri, diptikoak postontzietan sartu eta sare sozialak ere erabiltzen dira.

HERRITARRENTZAKO ARRETA

Ohikoa izaten da emakumeak Berdintasun Sailera etortzea genero-indarkeriari buruzko aholkularitza bila. Orain arte, eskura dituzten baliabideen berri eman diegu eta kasu zehatzagoetan, esaterako, indarkeria jasaten ari den alaba adingabe bat dutenen kasuan, zer egin azaldu diegu.

GIZARTE ZERBITZUEN BATZORDEA

Hiru hilabetean behin, Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuen Batzordean aurkezten dira Berdintasun Sailean antolatzen diren programak eta ekintzak.

1. PROGRAMAK

1.- ERDITU ONDORENGO TALDE TERAPEUTIKOA

1.- Jardueraren esparrua

Ordu eta laurdeneko iraupeneko 10 saioko asteko hiru ikastaro, astearteetan goizeko 10:00etatik 11:15era Derioko kiroldegian. Helburua da amei laguntza emozionala eskaintzea amatasunaren lehen hilabeteetan.

2.- Jardueraren helburuak

- Amatasuna lagunduta eta konfiantzaz bizitzen laguntzea.
- Amei beren buruak epaitzeari uzteko eta behar bezala baloratzeko laguntza ematea.
- Ama seguru, epaiketarik gabe eta lagunduta dagoen espazio batean partekatzea, egoera berean dauden beste ama batzuek inguratuta.
- Ama lasai, entzunda eta lagunduta sentitzen den espazio bat sortzea, bere buruan zuen konfiantza berreskuratu ahal izateko.

3.- Jardueraren deskribapena

Amei babesa emateko erditu ondorengo taldea. Zati teoriko batez eta beste parte-hartzaileago batez osatzen da. Bigarren horretan, teoria bizipenen bidez barneratzen da eta, aldi berean, gorputz-mugimenduaren bidez ere lan egiten da, autoezagutza eta autozaintza hobetu eta indartzeko.

4.- Ebaluazioa

Balorazioa oso positiboa izan da. Zerbitzu berri honek modu oso positiboan bete du amatasunak babestearen esparruan zegoen hutsa. Parte-hartzaileek modu positiboan baloratu dituzte edukia eta metodologia, eta horrelako taldeen beharra azpimarratu dute.

5.- Aurrekontua

Ikastaroen kostua, guztira, 2616,5 €-koa izan da, ORAIN enpresaren kargura.

6.- Hartzailleak

Beren amatasunean lagunduta (eta ez bakarrik) sentitu nahi duten amak, beren egunerokoa hobetu eta amatasuna konfiantzaz bizi nahi dutenak.

7.- Hobetzeko proposamenak

Talde bakoitzarentzako saio-kopurua ugartzeko beharra dago, gaian sakondu eta eginiko lana finka dezaten.

2.- PRESTAKUNTZA EUSKALTEGIKO IRAKASLEENTZAT: "NOLA INTEGRATU BERDINTASUNA ESKOLETAN"

1.- Jardueraren esparrua

4 orduko ikastaroa, Euskaltegiko irakasleei zuzendua, eskoletan berdintasuna integratzeko moduari buruz.

2.- Jardueraren helburuak

- Jarduera, eduki eta eskola barruko jarreretan berdintasuneko praktika positiboak integratzeko tresnak eskaintzea.
- Sexua-generoa, sexu-rolak eta -estereotipoak eta indarkeria matxista bezalako oinarriko kontzeptuak argitzea.
- Jarrera eta egoera matxistak identifikatzeko estrategiak planteatzea eta tresnak ematea.
- Hizkera ez-sexistaren erabilera sustatzea.
- Generoagatiko balio ez-diskriminatzaileak eta berdinzaleak transmititzea, indarkeriarik eza oinarritutako heziketa indartzeko xedearekin.

3.- Jardueraren deskribapena

4 orduko prestakuntza, bi egunetan banatua. Euskaltegiko irakasleentzat da, eta helburua da norberaren esperientziak eta taldeko hausnarketa oinarri hartzen dituen metodologia parte-hartzaile baten bidez berdintasun-balioetan sentsibilizatzea, eta irakaskuntza-praktikak indarkeriarik eza eta hizkera ez-sexistaren erabilera sustatzen duten esperientzia bihurtzea.

4.- Ebaluazioa

Prestakuntza inkesta kualitatibo baten bidez baloratu zen: iraupenari, metodologiari eta edukiei buruzko iritziak eta bestelako iradokizunak jaso ziren. Erantzunak oso positiboak izan ziren eta jarraitutasuna eskatu zuten, hurrengo urteetan gaian sakontzeko.

5.- Aurrekontua

400,00 €, Emari enpresaren kargura.

6.- Hartzaileak

Euskaltegiko irakasleak.

7.- Hobetzeko proposamenak

Urtero errepikatzeko beharra planteatu da, edukietan sakondu ahal izateko.

3.- INDARKERIA ETA SEXISMOA PREBENITZEA HARREMAN AFEKTIBO SEXUALETAN

1.- Jardueraren esparrua

Jarduera hau Politeknika Txorierriko Batxilergoko 1. mailako eta Mekanizazioko 1. mailako ikasleei zuzentzen zaie.

2.- Jardueraren helburuak

Jarduera honen bidez, helburu nagusi hauek lortu nahi izan dira:

- Politeknika Txorierriko nerabeen artean eztabaida sustatzea, indarkerian eta berdinen arteko genero-indarkerian parte hartzen duten mekanismoei buruz.
- Pertsona arteko harremanak finkatzeko beharrezkoak diren ezinbesteko balioak indartzen laguntzea: berdintasuna, autonomia, hautatzeko askatasuna, gatazkak indarkeriarik gabe ebaztea...
- Hezkuntzaren aldeko jarrera positiboak sustatzea, berdintasuna, indarkeriaren prebentzioa, kultura arteko hezkuntza eta antzeko balioetan oinarrituta.
- Sexualitateari, genero-rolari, tratu txarrei eta gainontzekoekiko intolerantziari

buruzko estereotipoak landu eta deseraikitzea.

3.- Jardueraren deskribapena

Talde bakoitzarekin 2 orduko saio bana egin da, eta eduki hauek landu dira bertan:

1. Politeknika Txorierriko ikasleen artean eztabaida sustatzea, tratu txarretan eta errespetu faltan parte hartzen duten mekanismoei buruz.
2. Gazteen arteko elkarbizitzarako alderdi gako gisa sustatzea ikasleen arteko indarkeria-harremanak eraldatzea elkarriketaren eta heterogenotasuna onartzearen bidez, horretarako sentsibilizazio- eta prestakuntza-eraketak eginez.

4.- Ebaluazioa

Bateratze-lanaren bidez baloratu da, eta iritziak modu kualitatiboan jaso dira. Ikastegiko orientatzaileak eta ikasleek beren esker-ona eta gogobetetzea agerrarazi dute eginiko esku-hartzei dagokienez, eta jarduerarekin jarraitzeko itxaropenak piztu dira.

Oro har, sexualitateari eta emozio erotikoei buruzko ideiak berregituratzea lortu da, sexuaren sozializazioa sustatu da balio positibo gisa, baita sexuen arteko aliantza sinergikoak ere, eta azkenik, emozioak hobeto hauteman eta kudeatzeko beharra gehitu da. Horrez gain, ikasleak sentsibilizatu dira indarkeria matxistaren kausa eta ondorioei buruz, eta jarduketara positiboak sustatu dira. Horrenbestez, ondoriozta daiteke programaren helburuak bete direla.

5.- Aurrekontua

Jardueraren kostu osoa 600,00 €-koa izan da, eta ESHEk dinamizatu du.

6.- Hartzaileak

- Mekanizazioko 1. mailako taldea (26 ikasle)
- Batxilergoko 1. mailako bi talde (29 ikasle, 17 neska)

7.- Hobetzeko proposamenak

Programan parte hartu duten agente guztiek balorazio positiboa egin dute. Hala ere, agian komeni izango litzateke prestakuntza zentroko ikasleekin sakonago lan egitea.

4.- BERTINEN ARTEKO HARREMANAK GENERO-IKUSPEGIAREKIN

1.- Jardueraren esparrua

3 orduko iraupeneko tailer bat da, Politeknikako Mekanizazioko 2. mailako ikasleei zuzendutakoa, harreman pertsonalei eta lanekoei buruz, genero-ikuspegiarekin.

2.- Jardueraren helburuak

- Genero-estereotipoak ikusgai egitea prestakuntza- eta lan-inguruetan.
- Jarrera eta egoera matxistak identifikatzea.
- Estrategiak planteatzea eta bestelako maskulinitate-ereduak eskaintzea.
- Generoagatiko balio ez-diskriminatzaileak eta berdinzaleak transmititzea, indarkeriarik ezan oinarritutako heziketa indartzeko xedearekin.
- Hezkuntza berdintasunean ematea sustatzea.

3.- Jardueraren deskribapena

Esku-hartzeko hiru ordu izan dira, zeinetan hainbat eztatanda planteatu baitira generoaren eraikuntzaren inguruan, lanbideen sexualizazioari buruz, gizonen eta emakumeen ezaugarri "maskulino" eta "femenino"-ei buruz hausnartuz, baita genero-estereotipoen eta genero-rolen inguruan ere.

4.- Ebaluazioa

Tailerra duela urte batzuk egiten da eta finkatuta dago jada. Oso balorazio positiboak jasotzen ditu inplikaturako agente guztien eskutik eta aurreko urtean ikastaroa egin zuten ikasleengan bilakaera oso positiboa ikus daiteke.

5.- Aurrekontua

300 €, eta ORTZADAREk dinamizatzen du.

6.- Hartzaileak

Mekanizazioko 1. eta 2. mailako ikasleak.

7.- Hobetzeko proposamenak

Interesgarria izango litzateke tailerra zabaltzeko aukera baloratzea.

5.- INSTITUTUAN INDARKERIA SEXISTA PREBENITZEKO TAILERRA

1.- Jardueraren esparrua

Institutuko DBHko 1., 2. eta 3. mailako ikasleak eta irakasleak sentsibilizatzeko jarduera da.

2.- Jardueraren helburuak

Jarduera honen bidez, helburu nagusi hauek lortu nahi izan dira:

- Sozializazio-prozesuak eta horiek gure pertsonalitatea eraikitzeko orduan duten eragina identifikatzea.
- Harreman afektiboak buruz eta gure pertsonalitatea eraikitzeko orduan dauden mitoak, estereotipoak eta uste faltsuen kontzientzia hartzea.
- Errespetuzko harremanak eta berdintasunean oinarritutakoak identifikatu eta sustatzea.
- Sakonago aztertzea zer da indarkeria sexista, zergatik gertatzen da, zer egin behar da eta non lor daiteke laguntza.
- Generoagatiko balio ez-diskriminatzaileak eta berdinezaleak transmititzea, indarkeria ezan oinarritutako heziketa indartzeko xedearekin.

3.- Jardueraren deskribapena

4 orduko 2 saio egin dira DBHko 1. eta 2. mailako talde bakoitzarekin, eta 3 orduko 2 saio DBHko 3. mailako taldeekin. Irakasleekin ordu eta erdiko saioak egin dira.

4.- Ebaluazioa

Bazterketa-kasuak identifikatu dira. Haien artean, ikasle transgenero bat, tailerrera arte horren berri eman ez zuena, baina aurretik jazarria izan zena. Gaia landu da, berdintasun eta sexu- eta genero-aniztasuneko balioak sustatuz, pertsona guztien arteko errespetua eta tratua ona bultzatzeko. Horrez gain, genero-rol eta -estereotipoei buruzko hausnarketa egin da, maitasunari eta harreman afektibo sexualei buruzko mitoak eraitsi dira, edertasun-kanonei buruzko hausnarketa egin da, eta autoestimua landu da, bakoitzaren ezaugarri indibidualak indartuz. Halaber, espazioaren erabileraren genero-hierarkiei buruz hausnartu da, eta zentzu horretan ekintza positiboak sustatu dira.

Oro har, ikasleak sentsibilizatu dira indarkeria matxistaren kausa eta ondorioei buruz, eta jarduketa positiboak sustatu dira. Horrenbestez, ondoriozta daiteke programaren helburuak bete direla.

5.- Aurrekontua

Jardueraren kostu osoa 6.498,25 €-koa izan da, eta Sortzen enpresa kontratatu da lana egiteko.

6.- Hartzaileak

Jarduera hau institutuko DBHko 1., 2. eta 3. mailako ikasle eta irakasleei zuzentzen zaie.

7.- Hobetzeko proposamenak

Jazarpen- eta bazterketa-kasu zehatzak eta ikasle transgeneroak identifikatu izanak kasu bakoitzerako segimendu jarraitu eta espezifikoak egiteko beharra planteatzen du, baita gaia sakonago lantzekoa ere.

Etorkizunera begira, tailerrekin jarraitzea aurreikusten da.

6.- KOMUNIKAZIO EZ-SEXISTARI BURUZKO PRESTAKUNTZA UDALEKO POLITIKARI ETA TEKNIKARIENTZAT

1.- Jardueraren esparrua

3 orduko iraupeneko prestakuntza, Txorierriko udal-politikari eta -teknikariei zuzendua.

2.- Jardueraren helburuak

- Udaleko politikari eta teknikariak sentsibilizatu eta prestakuntza ematea hizkera ez-sexistaren erabilerari buruz.
- Udal-praktiketan hizkera ez-sexistaren erabilera integrala aplikatzeko estrategiak eskaintzea.
- Jardunbide egokien erreferentziak eskaintzea udalaren idatzizko jakinarazpenak eta irudiak gauzatzeko.

3.- Jardueraren deskribapena

Prestakuntza zehatz horrek bi atal izan zituen. Lehenengoa teorikoagoa izan zen, azalpenezkoa; bigarrena, berriz, parte-hartzaileagoa. Azken horretan zalantza zehatzak argitu eta taldeko hausnarketak egin ziren kasu praktikoei buruz.

4.- Ebaluazioa

Parte-hartzaileek oso positiboki baloratu zuten.

5.- Aurrekontua

Jarduerak ez zuen inolako kosturik ekarri, EUDELeK eta Bizkaiko Foru Aldundiak eskaintzen duten zerbitzua baita, Berdinbidean-en bidez, 10.000 biztanletik berako udalerrietan.

6.- Hartzaileak

Txorierriko Mankomunitatea osatzen duten sei udalerrietako udal-politikari eta -teknikariak.

7.- Hobetzeko proposamenak

Beharrezkoa da mota horretako prestakuntza errepikatzea eta partaidetza zabaltzea, udal-langile guztietara iristeko eta hizkera ez-sexistaren erabilera bermatzeko udal-praktika guzti-guztietan.

7.-TAILERRA: "ERANTZUNKIDETASUNA ETA AUTONOMIA"

1.- Jardueraren esparrua

Norbere autonomia eta erantzunkidetasuna emakume eta gizonen arteko zereginak trukatzearen bidez garatzeko tailerra, Txorierriko emakume eta gizontzat.

2.- Jardueraren helburuak

- Etxeko zereginak emakume eta gizonen artean berdintasunez banatzeko konpromisoa sustatzea.
- Etxeko zereginetan trebetasunak eta gaitasunak lortzea erraztea.
- Taldea sentibilizatzea emakumeek eta gizonek etxeko lanetan eta familia-arduretan erantzunkidetasuna izatearen beharraz.
- Jarrera pertsonala eta jokabidea aldatzea lortzea, taldeari laguntzeko bere autonomia eta etxeko erantzunkidetasuna hobetzen.
- Lan-arloko eta familiako ardurak bateragarri egitea errazteko balioak, jarrerak eta arauak lantzea.

3.- Jardueraren deskribapena

Norbere Autonomiari buruzko Tailerreko Elektrizitate eta Iturgintza Modulua Derioko Kulturbirikan garatu da, 2018ko otsaila eta martxo bitartean, 18:30etik 20:30era; guztira 10 prestakuntza-ordu.

Iturgintza- eta elektrizitate-instalazioei buruzko oinarrizko kontzeptu teorikoak garatu dira, erremintak egoki erabiltzeko prestatu, eta ikasitakoa landu dute jarduera praktikoen bidez.

4.- Ebaluazioa

Oso positibotzat jo da eguneroko bizitzara aplikatu ahal izatea, eta horrek parte-hartzaileen autonomia handitzea dakarrela.

5.- Aurrekontua

Ikastaroak 1.490,72 €-ko kostua izan du guztira, Asti enpresaren kargura.

6.- Hartzaileak:

Txorierriko Mankomunitateko gizon-emakumeak.

7.- Hobetzeko proposamenak

Honelako tailerrekin jarraitzea, eta beste esparru batzuk ere sartzea: autoen mekanika, arozgintza, brikolajea eta bestelakoak.

Garrantzitsua da estrategia berriak bilatzea gizonak ere inplikatzeko.

8.- MARTXOAREN 8ko KANPAINA INSTITUTUAN - ARGAZKI-LEHIAKETA

1.- Jardueraren esparrua

Derioko institutuko ikasteentzako argazki-lehiaketa bat da, berdintasun-balioak sustatzeko eta bide horretan gazteen inplikazioa sustatzeko.

2.- Jardueraren helburuak

- Emakume gazteen irudi positiboak sustatzea eta ikusgarri egitea.
- Gazteak motibatzea eta inplikaraztea gure ingurua berdinzaleago bihurtzeko.
- Erreferentzia grafikoak sortzea gazteen arteko praktika onei buruz, berdintasunaren esparruan.

3.- Jardueraren deskribapena

Otsailean, eta martxoaren 8ko aurreko egunetan, institutuko irakasleekin batera, argazki-lehiaketa bat antolatu da, ikasleentzat, gazteen artean berdintasuna sustatzeko.

4.- Ebaluazioa

Parte-hartze handia izan da, eta bildutako lanek erakusten dute asko hausnartu dutela aurretik. Irudiek berdintasunaren, errespetuaren eta indarkeria matxistarekiko arbuioaren inguruko praktika onak islatu dituzte, eta, beraz, esan daiteke bete direla programaren helburuak.

5.- Aurrekontua

180,00 €, Virtual Bilbao enpresaren kontura, sariez arduratzen dena.

6.- Hartzaileak:

Derioko institutuko ikasleak.

7.- Hobetzeko proposamenak

Urtero errepikatzeko aukera aurreikusten da.

9.- HOMOFIARIEN ETA TRANSFIARIEN KONTRA SENSIBILIZATZEKO TAILERRAK, GAZTEGUNEETAN

1.- Jardueraren esparrua

2 orduko tailer bat, gaztegunerako bakoitzean, homofobiaren eta transfobiaren kontra sensibilizatzeko.

2.- Jardueraren helburuak

- Aniztasun afektibo-sexualaren inguruan hezte, era normalizatuan.
- Aniztasun afektibo-sexualari buruzko kontzeptuak argitzea/zabaltzea.
- Aniztasun sexualaren ondorioz gerta daitezken bazterketa-moduen gainean kontzientziatzea.
- Diferentzia afektibo-sexual, pertsonal eta familiarrekiko errespetua bultzatzea.
- Jazarpenari, sexismoari, sexu-abusuei eta LGBTI-fobieei aurrea hartzea.

3.- Jardueraren deskribapena

Tailer horien metodologia dinamikoa eta parte-hartzailea da, eta eztabaida hartzen da LGBTI pertsonerako jasaten dituzten askotariko indarkeriak aztertzeerako tresna nagusitzat. Horretarako, ikus-entzunerako materiala erabili da: iragarkiak, bideoklipak, irratiko edo telebistako tartear eta abar, haien inguruan hausnartzeko.

2.- Ebaluazioa

Jarduerara oso positibotzat jo dute bai parte-hartzaileek eta bai ematen dutenek. Gainera, tratua ona indartzeko eta indarkeria matxistei aurrea hartzeerako lan garrantzitsua bat da.

5.- Aurrekontua

1260,00 €, Sortzen Consultoría enpresaren kargura.

6.- Hartzailleak:

Txorierriko Mankomunitateko gazteak.

7.- Hobetzeko proposamenak

Tailerrak ematea dinamika horrekin urte osoan.

10.-CHOCHARLA

1.- Jardueraren esparrua

Hitzaldi hau Txorierriko I. Topaketa Feministaren barruan egin da. 2 ordu iraun du, eta emakumeen ahalduntzea eta "coño" (alua) hitzaren erabilera positiboa, gure gorputzaren gaineko birjabetzearen sinbolotzat, landu da.

2.- Jardueraren helburuak

- Txorierriko emakumeak ahalduntzea eta prestatzea, beren gorputzen eta genitalen birjabetzea sustatzeko.
- Aluaren gaineko mitoak, tabuak eta estereotipoak deseraikitzea.
- Hizkuntzaren erabilera positiboa sustatzea, gure gorputza eta genitalak izendatzeko orduan.

3.- Jardueraren deskribapena

Hitzaldi dibertigarri, zuzen eta hunkigarria, gorputzaren eta emakumeen sexualitatearen ikusezintasunaren eta estigmatizazioaren salaketak ere zeharkatua, birjabetzea sustatzeko, ikuspegi positibo, atsegingarri eta boterez betetako batetik.

4.- Ebaluazioa

Hitzaldia guztiz arrakastatsua izan zen: espero zena baino askoz parte-hartze handiagoa izan zuen.

5.- Aurrekontua

850,00 € Cristina Chinchilla Martinez "Psicowoman"-en kargura.

6.- Hartzaileak:

Txorierriko I. Topaketa Feministako parte-hartzaileak.

7.- Hobetzeko proposamenak

Horrelako jardueretan parte hartzen eta haiek babesten jarraitzea.

11.-BERDINTASUNAREN ARLOKO PRESTAKUNTZA, HAZILAN PROGRAMARENTZAT

1.- Jardueraren esparrua

Bost orduko prestakuntza, Txorierriko Mankomunitateko Berdintasun teknikariak HAZILAN proiektuaren barruan eman zuena. Prestakuntza-programa hori goi-mailako ikasketak dituzten 20 eta 44 urte bitartekoen enplegarritasuna hobetzeko eta haiek prestatzeko da.

2.- Jardueraren helburuak

- Berdintasun-arloko gaitasunak garatzeko prestakuntza eta oinarriko kontzeptuak ematea.
- Tresnak ematea lan-eremuko indarkeria matxistei aurre egin edo aurrea hartzeko.
- Hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiteko prestatzea.

3.- Jardueraren deskribapena

5 orduko prestakuntza; zati batean, azalpen teorikoa, dinamikekin eta ariketa praktikoa parte-hartzaileekin lagunduta, eta ikus-etzunezko materialekin indartua.

4.- Ebaluazioa

Urteroko prestakuntza horrek balorazio oso ona du, eta ezinbestekotzat jotzen da programaren barruan. Aukera estrategikoa da prestakuntza sakona ematea are sentsibilizatuta ez daudenei.

5.- Aurrekontua

Prestakuntza honek ez du kostu gehigarririk, Txorierriko Berdintasun teknikariak ematen baitu bere lanaldiaren barruan.

6.- Hartzaileak:

20 eta 44 urte bitarteko 15 pertsona, goi-mailako ikasketak dituztenak eta HAZILAN programan izena emanda dutenak.

7.- Hobetzeko proposamenak

12.- AZAROAREN 25EKO KANPAINA. HITZALDIA: "ANIZTASUN FUNTZIONALA ETA INDARKERIA"

1.- Jardueraren esparrua

Bestelako funtzionaltasunak dituzten emakumeek jasaten dituzten askotariko indarkerien inguruko hitzaldi irekia.

2.- Jardueraren helburuak

- Herritarrak sentibilizatzea indarkeria matxisten eta bestelako funtzionaltasunak dituzten emakumeen egoeraren inguruan.
- Herritar guztiak inplikatzeko indarkeria matxistari aurrea hartzeko.
- Tresnak eta ereduak ematea bestelakoak direnak ondo tratatzeko.

3.- Jardueraren deskribapena

Hitzaldi hau ezin izan zen egin, quorumik ez zegoelako. Hizlaria agertu egin zen, eta 10-15 minutu itxaron zuen, baina 3 pertsona baizik ez ziren agertu, horietako bi justu jaso ondoren.

4.- Ebaluazioa

Hitzaldia ezin izan zen egin, quorumik ez zegoelako.

5.- Aurrekontua

Jarduerak 150,00 €-ko kostua izan du, Jimenez Gomez Fekoor Desgaitasun fisikoa edo/eta organikoa duten Bizkaiko pertsonen Federazio Koordinatzaileko Berdintasun teknikariaren kargura.

6.- Hartzaileak:

Txorierriko herritar guztiak.

7.- Hobetzeko proposamenak

Zabalpen-estrategiak indartu behar dira.

13.- "FEMINISMOAREN OINARRIAK" PRESTAKUNTZA INSTITUTUKO IKASLEENTZAT

1.- Jardueraren esparrua

2 orduko hitzaldia, Derioko Intitutuko ikasleentzat, feminismoaren inguruan prestatzeko.

2.- Jardueraren helburuak

- Gizarte-praktika matxisten gaineko ikuspegi kritiko bat sortzea.
- Tresnak ematea beren inguru hurbilenak ulertu eta eraldatzeko, ikuspegi feministaren bitartez.
- Tresnak ematea indarkeria matxistei aurre egiteko.

3.- Jardueraren deskribapena

2 orduko prestakuntza honek metodologia dinamiko eta parte-hartzailea izan du, eta ikus-entzunezko materialekin indartu da.

4.- Ebaluazioa

Oso positibotzat jo dute bai ikasle parte-hartzaileek eta bai antolatzeaz arduratu den irakasleak ere. Helburu guztiak bete dira.

5.- Aurrekontua

Prestakuntza honek 170,00 €-ko kostua izan du, Sortzen Consultoría enpresaren kargura.

6.- Hartzaileak

Derioko institutuko 16 bat ikasle.

7.- Hobetzeko proposamenak

Horrelako prestakuntzak ikasturte osoan ematea proposatzen da, hasitako lana sakontzeko.

4. DIRULAGUNTZAK

2018-2019an, Eusko Jaurlaritzak, bakeari eta bizikidetzari buruzko dirulaguntzaren barruan, Mankomunitatea diruz lagundu du; 12.956,47 € eman dizkio, guztira. Eskaera horretan, programa hauek sartu ziren, Berdintasun arloan:

- INDARKERIA SEXISTA PREBENITZEA
- INDARKERIA ETA SEXISMOA PREBENITZEA HARREMAN AFECTIBO SEXUALETAN
- BERDINEN ARTEKO HARREMANAK GENERO-IKUSPEGIAREKIN
- MAIATZAREN 17ko KANPAINA, GAZTEGUNEETAN, HOMOFIARIEN ETA TRANSFIARIEN KONTRA.

5. UDAL BAKOITZEAN EGINDAKO JARDUEREN LABURPENA

Mankomunitateak herritar guztientzako jarduerak antolatzen ditu, eta udalek gauza bera egiten dute udalerrri bakoitzean. Jarduera hauek egin dira udalerrietan:

LOIU

2018an, honako jarduera hauek jarri dira martxan:

- TREBAKUNTZA EMOZIONALEKO TAILERRA, EMAKUMEENTZAT.
- MARTXOAREN 8ko EMAKUMEEN BAZKARIA
- EMAKUMEEN BIHOTZKOEI BURUZKO HITZALDIA. ABENDUA
- IPUIN-KONTALARIA, AZAROAREN 25ean, LUDOTEKAN

- MINDFULNES TAILERRA, EMAKUMEENTZAT.

SONDIKA

2018an, honako jarduera hauek jarri dira martxan:

- "EMAKUMEAK INDIAN" ERAKUSKETA, LIBURUTEGIAN, MARTXOAREN 8ko KANPAINAREN BARRUAN.
- "MUSIKA AZTERTUZ" TAILERRA, GAZTETXEAN, MARTXOAREN 8ko KANPAINAREN BARRUAN.
- MINDFULNES TAILERRA, EMAKUMEENTZAT.
- LEHEN HILEKOAREN INGURUKO IKASTAROA.
- EMAKUMEAK BIDE GILE ERAKUSKETA, LIBURUTEGIAN.
- JARDUERA LUDOTEKAN, AZAROAREN 25erako: TRATU ONEN HORMA-IRUDIA.
- JARDUERA GAZTETXEAN, AZAROAREN 25eko KANPAINAREN BARRUAN: SEXUALITATEA ETA INDARKERIA MATXISTA.
- AZAROAREN 25eko MARTXA ISILA.

ZAMUDIO

2018an, honako jarduera hauek jarri dira martxan:

- LUDOTEKA-JARDUERA, MARTXOAREN 8an: TXIMELETAK GARA.
- TAILERRA GAZTEEKIN, MARTXOAREN 8an.
- "PANTXIKA LAMUR" ANTZEZLANA, MARTXOAREN 8ko PROGRAMAREN BARRUAN.
- EMAKUMEENTZAKO AUTODEFENTSA-TAILERRA.
- EMAKUMEEN ESKU PILOTA MASTER CUPAREN FINALA, PILOTALEKUAN.
- ARIKETA HIPOPRESIBOAK, MARTXOAN.
- LEHEN HILEKOAREN INGURUKO IKASTAROA.
- UDALEKO HIRIGINTZA-ARAUDIA BERRIKUSTEA, GENERO-IKUSPEGIAREKIN.
- TAILERRA: EMAKUMEENTZAKO ELIKADURA KONTZIENTEA.
- BERDINTASUN-IKUSPEGIA DUTEN BINETA ALDARRIKATZAILE EDO SALAKETAZKOAK ARGITARATZEA.
- JARDUERA LUDOTEKAN, AZAROAREN 25ean.
- TAILERRA GAZTEEKIN, AZAROAREN 25ean.

DERIO

2018an, honako jarduera hauek jarri dira martxan:

- MARTXOAREN 8ko MARTXA
- BERDINTASUNAREN ALDEKO PHOTOCALLA, MARTXOAN
- BERDINTASUN-PLANAREN AURKEZPENA
- KONTRATAZIO PUBLIKOAN BERDINTASUN-KLAUSULAK JARTZEAREN GAINEKO PRESTAKUNTZA
- MINDFULNESS IKASTAROA.
- LEHEN HILEKOAREN INGURUKO IKASTAROA.
- UDAL-LIBURUTEGIAN FEMINISMOEN ETA EMAKUMEEN GAINEKO ATAL BAT JARTZEA.
- EMAKUMEEN BIHOTZKOEI BURUZKO HITZALDIA.
- KOMUNIKABIDEETAKO SEXISMOARI BURUZKO HITZALDIA.
- TAILERRA GAZTEGUNEAN, A-25eko KANPAINAREN BARRUAN.

LEZAMA

2018an, honako jarduera hauek jarri dira martxan:

- LUDOTEKA-JARDUERA, MARTXOAREN 8an
- GAZTEGUNE-JARDUERA, MARTXOAREN 8an
- ANTZERKIA, MARTXOAREN 8AN
- "ANTONIAS LINE" ZINE FORUM FEMINISTA
- LEZAMAKO HAPO GENERO-IKUSPEGITIK BERRIKUSTEA.
- KALE-ARGIETAN ESEKITZEKO BANDERAK, A-25eko KANPAINAREN BARRUAN.
- GAZTEGUNEKO JARDUERA, AZAROAREN 25ean.
- AUTODEFENTSA FEMINISTAKO TAILERRA.
- BERDINTASUN KONTSEILUA

LARRABETZU

2018an, honako jarduera hauek jarri dira martxan:

- BERDINTASUN-PLANAREN AURKEZPENA.

- ZUTUNIK-EN JARDUERAK